

IRUDIA ETA ERROTULAZIOA	Kostuaren %	Gehienez
<b>Errotuluak</b>		
Errotulu nagusia.	%50	300 €
Bestelakoak: ibilgailuetakoak, enpresaren kokapena iragartzen dutenak, eta abar.	%50	300 €
<b>Irudi korporatiboa</b>		
Orri menbretedunak, kartazalak, bisita-txartelak, entitatearen identifikazio-zigilua, fakturak, poltsak, paketzeko papera, etiketak eta, oro har, enpresaren irudia erakusten duten idatzizko materialak.	%50	200 €
<b>Web orriak eta programa informatikoak</b>		
Web gune osoa euskaraz edo bietara, beti ere hasierako orrian euskarari lehentasuna emanda.	%50	450 €
Web guneko hasierako orri nagusia eta lehenengo mailako orriak euskaraz edo bietara.	%30	300 €
Enpresan euskararen erabilera normalizatzen lagun dezaketen programa informatikoak.	%50	200 €
<b>Kanpoko erabilerako dokumentazioa</b>		
Funtzionamenduko edo erabilerako eskuliburuak, inprimakiak, kutxako ticketak, albaranak edo baliokideak.	%50	300 €
<b>PERTSONALAREN HIZKUNTZAZKO GAITASUNA</b>		
<b>Euskarako ikastaroak</b>		
Euskalduntzeko, alfabetatzeko eta euskara teknikoko ikastaroak.		
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Euskaltegieta ohiko taldeetan parte hartzeko aukera. Matrikularen <b>%75eko subentzioa</b>. Udalak jarritako baldintzak betez gero.</li> <li>- Euskaltegieta sektoreka antolatutako ikastaroetan trebatzeko aukera. Euskara zerbitzuaren baliabideen arabera aztertuko da kasuan kasukoa.</li> </ul>		

## Baldintzak

- Errotuluetan jarritakoa izen propioa besterik ez bada, ez da diru-laguntza jasotzeko aukerarik izango.
- Errotulua euskara hutsean edota bietara egin bada, euskara erdararen pareko dutenak edota lehentasuna ematen diotenak lagunduko dira diruz.
- Errotuluetan agertuko den testua zuzen idatzita egongo da.
- Errotuluetan eta gainerako elementuetan jarriko den testuak Euskarako Zerbitzuaren oniritzia jaso beharko du exekutatzera eraman baino lehen.
- 500€-ko topea xahutu arte jaso ahal izango du enpresak irudia eta errotulaziorako laguntza.
- Aurrekoaz aparte, euskarako eskolak jasotzen dituen pertsonalak ere izango ditu, kasuan-kasuan, beken bidezko diru-laguntzak.
- Ezingo da kontzeptu beragatik diru-laguntza ofizial bat baino gehiago jaso, euskara ikasteko eskolen kasuan izan ezik.
- Izaera ez ofizialeko entitateek bakarrik jaso ahal izango dute diru-laguntza.

## Prozedura

1. Egingo denaren proiektua aurkeztu ondoren, Euskara Zerbitzuak ebaluatu eta laguntza bidera daitekeen ala ez erabakiko du.
2. Laguntza-eskaera Udaleko Erregistroan aurkeztu behar da.
3. Egindakoa nola gelditu den erakutsiko duen frogaren bat eraman beharko da Euskarako Zerbitzura, fakturaren kopia batekin.